




© Kihuka

LEA-ARTURAI

Lea-Artibai

LEA-ARTIBAI



Ziur aski, Lea Artibai eskualdeak beste edozein eskualdek baino hobeto erakusten du kristaudia-
ren ardatz historikoaren, hots, gaur egun "Done-
jakue Bidea" deritzonaren, eta Behe Erdi Aroko
aurrerapenaren ardatzaren, hau da, hegotik
iparrera Gaztela eta Kantauriar Isurialdea lotzen
zituzten ibilbideen, arteko topaketa.

Jardunaldi hauetan, bide horien guztien garrantzia
islatzen saiatuko gara, bideon tipologia bereziak
erakutsiz: errege bideak, galtzadak, burdibideak,
zor-bideak, andabideak, bidezidorrak, zalbide
edo mandabideak, abelbideak... , bai eta galtzada
erromatarrek ere; hain justu ere, eskualde osoan
azken horietarik garau bat ere ez izateak datu
interesgarria ematen digu honetaz guztiaz.

Historiaren eta ondarearen ikuspegitik interesa
duten toki guztietan bada haietara hurbiltzeko
bideren bat, zeren eta, funtsean, leku interesga-
rriok bideren baten ondoan eraikitzen izan dira
ia beti, alderantziz barik.

Lea Artibai probablemente muestra mejor que
ninguna otra comarca el encuentro entre el
eje histórico de la cristiandad, hoy denominado
"Camino de Santiago" y el eje del progreso durante
la Baja Edad Media, es decir, las rutas que de sur
a norte unían Castilla con el Cantábrico.

En estas jornadas trataremos de desvelar la
importancia de estos caminos mostrando sus
diferentes tipologías: Caminos Reales, calzadas,
caminos carriles o carretilles, de servidumbre,
sacramentales (andabideak), sendas, caminos
de herradura, cañadas o vías pecuarias...
incluso las calzadas romanas, que el hecho de
no tener ninguna en la comarca ya nos aporta
un dato interesante.

Todos los lugares de interés histórico y
patrimonial tienen un camino por el que
acercarse, porque en realidad, casi siempre,
son los primeros los que se construyen junto al
camino y no al contrario.



ZIORTZA

1. BOLIBAR-ZIORTZA- GERRIKAITZ: KRISTAUDIAREN ARDATZA, DONEJAKUE BIDEA.

Bolibarko hirigunetik abiatuko gara. Herriaren erdigune horretatik galtzadan gora egingo dugu, hariak eta Ziortzako Kolegiata jo arte (hango monumentu-multzoa bisitatuko dugu). Ondorik, aurrera egingo dugu landa-bidean eta bidezidorrean zehar, eta Gontzugarai, Uriona eta Garro zeharkatuko ditugu, Gerrikaitz hiribilduraino. Herri horretan, erreka alboan dagoen Bengola izeneko burdinola ikusiko dugu. Ola hori, XIV. mendekoa dena, Euskadin erabat industu eta aztertu den burdinolarik zaharrena da.

Egunak eta ordua:

Urriaren 12an eta 17an, 10:00etan.

Gutxi gorabeherako distantzia: 6 km.

Biltzeko tokia: Bolibarko plaza.

Antolatzaileak: Ziortza-Bolibarko Udala eta Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitzeko Udala.

Argibideak jaso eta erreserbak egiteko telefonoa: 688 632 284

1. BOLIBAR-ZIORTZA- GERRIKAITZ: EJE DE LA CRISTIANDAD, CAMINO DE SANTIAGO.

Comenzaremos la visita en el casco urbano de Bolibar, desde donde subiremos por la calzada hasta la Colegiata de Ziortza (visita al conjunto). Continuaremos por el camino rural y sendero, por Gontzugarai, Uriona, Garro hasta llegar a la villa de Gerrikaitz, visitando la ferrería hidráulica de Bengola del S XIV, la más antigua de Euskadi excavada y estudiada.

Días y horario:

12 y 17 de octubre, a las 10.00 h.

Distancia aprox: 6 km.

Punto de encuentro: Plaza de Bolibar.

Organizan: Ayuntamientos de Ziortza-Bolibar y de Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz.

Teléfono de información y reservas:

688 632 284





AULESTIA

2. AULESTIA-GIZABURUAGA: AURRERAPENAREN ARDATZA, KANTAURIAR ISURIALDETIK GAZTELARA.

Pontorroiko zubi zaharrean hasiko dugu bisitaldia. Handik zeharkaldia egingo dugu, Aulesti goitik ikusiz. Ondokoak bisitatuko ditugu: Zetokizko burdinola eta errota. Ibetako uharka eta kanala. Angizko andabidea. Bandokieen garaiko Bengolako dorretxea. Izen bereko burdinola eta errota. Gizaburuaga. Lariz Aurreko errota zaharra. Lariz Oletako uharka (XVIII. mendeko obra ederra, Berrizko Pedro Bernardo Villarreal ingeniari ospetsuarena).

Egunak: urriaren 3an eta 18an, 11:00etan.

Gutxi gorabeherako distantzia: 7 km.

Biltzeko tokia: Aulestiko plaza.

Antolatzaileak: Aulestiko Udala eta Gizaburuagako Udala

Argibideak jaso eta erreserbak egiteko telefonoa: 688 632 284

2. AULESTIA-GIZABURUAGA: EJE DEL PROGRESO, DEL CANTÁBRICO A CASTILLA.

Comenzamos la visita en el antiguo puente de Pontorroí. Travesía paralela en panorámica sobre Aulesti. Complejo ferromolinero de Zetokiz, presa y canal de Ibeta. Andabide o camino funerario de Angiz. Torre banderiza de Bengolea. Complejo ferromolinero de igual nombre. Gizaburuaga. Antiguo molino de Lariz Aurre. Presa de Lariz Oleta (ejemplar obra interpretada del ilustre ingeniero del s XVIII Pedro Bernardo Villarreal (de Bériz).

Días y horario:

3 y 18 de octubre, a las 11:00 h.

Distancia aprox: 7 km.

Punto de encuentro: Plaza de Aulesti.

Organizan: Ayuntamientos de Aulestia y de Gizaburuaga.

Teléfono de información y reservas: 688 632 284

MARKINA

3. MARKINA-ETXEBARRIA: "MUNIBE ETA ILUSTRAZIOA".

Andabidean zehar, Markinako hiribildutik Etxebarriko herrira joko dugu; bide horretan, lurralde honen historian interes handia duten bi mugarri bisitatuko ditugu: Munibe, Peñafloredako Kondearen, hau da, "Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen" sortzaileetarik baten sendiaren egoitza izan zen jauregia; eta Ansotegi, XVIII. mendeko dorretxea, burdinola eta errota.

Egunak eta ordua: urriaren 4an eta 11n, 11:00etan.

Gutxi gorabeherako distantzia: 3 km.

Biltzeko tokia: Zelaia.

Antolatzaileak: Markinako Udala eta Etxebarriko Udala.

Argibideak jaso eta erreserbak egiteko telefonoa: **688 632 284**

3. MARKINA-ETXEBARRIA: "MUNIBE Y LA ILUSTRACIÓN".

Valiéndonos del andabide (camino sacramental), conectaremos la villa de Markina con Etxebarria, visitando 2 hitos de gran interés en la historia de este territorio: Munibe, palacio que fue sede del linaje de uno de los fundadores de la "Real Sociedad Vascongada de Amigos del País", el Conde de Peñafloreda; y Ansotegi, casa torre y complejo ferromolinero del XVIII.

Días y horario:

4 y 11 de octubre, a las 11:00 h.

Distancia aprox: 3 km.

Punto de encuentro: Prado.

Organizan: Ayuntamientos de Markina y de Etxebarria.

Teléfono de información y reservas:
688 632 284



4. ISPASTER, EUSKAL HERRI- ARKITEKTURAREN MUSEO BIZIA.

Ibilbide honetan, Euskal Herriko baserriak espazioan eta denboran izan duen bilakaera arkitektonikoaz jabetuko gara. Ondoko hauek dira Gotikoa, Errenazimentua, Barrokoa eta Neoklasikoa argi aski islatzen dituzten baserriak: Erkiaga bekoa, Kaltzada, Erkiaga erdikoa, Axpe, Arana, Kortazar Goikoa eta Atxabal, besteak beste. Gidariak eraikuntzari eta historiari buruzko xehetasunak emango dizkigu, baserriaren bilakaeraren eta hauen berezitasunen ideia bat emate aldera. Baserrien arteko bideek ere Jardunaldi hauen gai nagusia aipatzeko beta ematen digu, Udalerrian dauden bide motak ikusi ahal izango baititugu: errege bidea, galtzadak, burdibideak, andabideak eta abar.

Eguna: urriaren 24an, 11:00etan.

Gutxi gorabeherako distantzia: 8 km.

Biltzeko tokia: Ispasterko plaza.

Antolatzailea: Ispasterko Udala.

Argibideak jaso eta erreserbak egiteko telefonoa: **688 632 284**

4. ISPASTER, MUSEO VIVO DE ARQUITECTURA POPULAR VASCA.

Realizaremos un itinerario en espacio y tiempo sobre la evolución arquitectónica del caserío vasco. El gótico, Renacimiento, barroco y neoclásico se representan en los caseríos Erkiaga bekoa, Kaltzada, Erkiaga erdikoa, Axpe, Arana, Kortazar Goikoa y Atxabal, por citar algunos. El guía dará detalles constructivos e históricos que proporcionan una idea de su evolución y singularidad. Los caminos entre ellos nos permiten también hacer mención al tema común de estas Jornadas, introduciendo las tipologías que en el municipio se dan: Camino Real, calzadas, burdibides, caminos funerarios, etc.

Día: 24 de octubre, a las 11:00 h.

Distancia aproximada: 8 km.

Punto de encuentro: Plaza de Ispaster.

Organiza: Ayuntamiento de Ispaster.

Teléfono de información y reservas:
688 632 284





Berriatua

5. BERRIATUA: "ANDABIDEAK", BIDE SAKRATUAK.

Andabide zahar batean zehar ibiliko gara; hain zuzen ere, "anderuek" atsedena hartzen zuten tokiko aztarrenak aurki ditzakegu bide horretan. Ibilbide horrek gizarte-arloan eta arlo ekonomikoan zeharo garrantzizkoak ziren Udalerriko tokiak lotzen zituzten beste bide mota batzuk gogorarazten dizkigu, historiaren garai ezberdinak iradokiz.

Bideotariko batek Lekoia Bekoa izeneko baserrira garamatza. Baserri hori landalurreko arkitekturaren adibide eder-ederra da. Azkenik, pintatutako etxea ikusiko dugu, pinturez apaindutako XVIII. mendeko eraikin bitxia; pinturok irtirinei buruzko istorio bat kontatzen digute.

Eguna eta ordua: urriaren 10ean, 11:00etan.

Gutxi gorabeherako distantzia: 5 km.

Biltzeko tokia: Berriatuko plaza.

Antolatzailea: Berriatuko Udala.

Argibideak jaso eta erreserbak egiteko telefonoa: 688 632 284

5. BERRIATUA: "ANDABIDEAK", CAMINOS SAGRADOS.

Recorrido por un andabide o camino funerario tradicional que conserva vestigios del lugar donde descansaban los "anderuak". El itinerario recrea otros tipos de caminos que unían lugares claves de la vida social y económica del municipio a lo largo de los distintos periodos históricos.

Uno de estos caminos nos acerca al caserío Lekoia Bekoa, un autentico hito en la evolución arquitectónica rural y a la "casa pintada" un singular edificio del s. XVIII adornado con pinturas que narran una historia de petimetres.

Día: 10 de octubre, a las 11:00 h.

Distancia aproximada: 5 km.

Punto de encuentro: Plaza de Berriatua.

Organiza: Ayuntamiento de Berriatua.

Teléfono de información y reservas: 688 632 284

6. HITZALDIA: "LEKEITIO: LEHENGO ETA GAURKO BIDEAK".

Hizlariak: Elena Aranda eta Guillermo Ruiz de Erentxun (SENDO S.L. ingeniaritza).

Eguna eta ordua: urriaren 23an, 19:00etan.

Tokia: Kultur Etxeko Azkue aretoan.

Antolatzailea: Lekeitioko Udal Kultur Erakundea

Informazioa jasotzeko telefonoa: 946 034 100 (9:00etatik 15:00etara)

6. CONFERENCIA: "LEKEITIO: LEHENGO ETA GAURKO BIDEAK" / "LEKEITIO: LOS CAMINOS DE AYER Y DE HOY".

Ponentes: Elena Aranda y Guillermo Ruiz de Erentxun (Ingeniería SENDO S.L.).

Día y hora: 23 de octubre, a las 19:00 h.

Lugar: Kultur Etxeko Azkue aretoan.

Organiza: Lekeitioko Udal Kultur Erakundea.

Teléfono de información: 946 034 100 (9:00-15:00 h.).